XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

4691

HUTS-ZUZENKETA, dekretu honena: 144/2026 Dekretua, irailaren 15ekoa, bitartekaritza- eta enplegatze-zerbitzua emateko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta enplegatze-agentzien arteko akordio irekiak arautzen dituena.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Era horretako hutsak aurkitu dira irailaren 15eko 144/2026 Dekretuan (2006ko urriaren 26ko Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratua, 204. zk.), zeinaren bidez arautzen baitira bitartekaritza- eta enplegatze-zerbitzua emateko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta enplegatze-agentzien arteko akordio irekiak; zehazki, dekretu horretan aipatzen diren I. eta II. eranskinak falta dira. Hori dela eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen:

I. ERANSKINA

EBALUAZIOAREN OINARRI DIREN IRIZPIDE KUANTITATIBO ETA KUALITATIBOAK ETA EBALUAZIO-PROZESUA GAINDITZEKO LORTU BEHAR DIREN GUTXIENEKO ATALASEAK

Zk.	Irizpidea		Puntuak	Definizioa	Eremua
1	Enpresa eskaintzaile berrien tasa*		10		
	< 10	0		Eskaintzak kudeatzeko eskaera egin duten enpresen eta enplegatze-agentziak aldi horretan amaitu dituen eskaintza guztien artean, eskaintzak kudeatzeko eskaera egin duten eta enplegatze-agentziak aldi horretan amaitu dituen eta aurreko 3 urteetan Lanbiden eskaintzarik erregistratu ez duten enpresa guztien ehunekoa.	Enplegu-eskaintzak biltzea
	>=10 eta <=40	5			
	> 40	10			
2	Parekatutako hautagaitzen egokitasuna		10		
	< 50	0		Eskaintzetan bidali diren hautagai guztien artean, enpresaren arabera egokiak izan direnen ehunekoa.	Hautagaiak egokiak izatea
	>= 50 eta <= 80	5			
	> 80	10			
3	Eskaintzarentzako arreta-denbora		10		
	>= 3 egun	0		Eskaintzari alta ematen zaionetik lehenengo hautagaia bidali arte igarotako batez besteko denbora, gutxienez hautagai bat bidalia duten amaitutako eskaintzetan.	Erantzuteko denbora
	>= 2 eta <= 3	5			
	< 2	10			
4	Hautagaitzen bidalketen maila		10		
	> 40	0		Aldi horretan enplegatze-agentziak hautagairik bidali gabe amaitutako eskaintza guztien ehunekoa.	Hautagaiak bidaltzea
	>=10 eta <= 40	5			
	< 10	10			
5	Enplegu-eskaintzen estaldura-maila		10		
	< 10	0		Aldi horretan enplegatze-agentziak amaitutako eskaintza guztien artean, bidalitako pertsonaren baten enplegatze-kontratuarekin amaitu direnen ehunekoa.	Bitartekaritzaren eraginkortasuna
	>=10 eta < =40	5			
	> 40	10			
6	Enpresen gogobetetasun orokorra				
	< 7	0		Enpresek eskaintza kudeatzeko erari buruzko batez besteko gogobetetze orokorra.	Zerbitzuarekiko gogobetetzea
	>=7 eta <9	5			
	>=9	10			
7	Eskaintzen emaitzen informazio-maila		20		
	< 40	0		Akordio irekiaren ebaluazio-aldian amaitutako eskaintza guztien artean, enpresaren emaitza jasota daukatenen ehunekoa.	Emaitzen informazioa
	>=40 eta <=60	10			
	> 60	20			

Zk.	Irizpidea		Puntuak	Definizioa	Eremua
8	Kudeaketa ordaindu ahal izateko betekizunen betetze-maila		10		
	< 80	0		Enplegatze-agentziak amaitutako eskaintza guztien artean, dekretu honen 13.2.a artikuluan ezarritako kudeaketa ordaindu ahal izateko betekizunetatik gutxienez bat betetzen dutenen ehunekoa.	Eskaintzen kudeaketaren kalitatea
	>=80 eta <= 90	5			
	> 90	10			
9	Kalitatezko enpleguarekin estalitakoen tasa		10		
	< 10	0		Aldi horretan enplegatze-agentziak amaitutako eskaintza guztien artean, dekretu honen 13.4 artikuluan jasotako baldintzen arabera ordainketa eragin duen enplegatze-kontraturen batekin amaitu direnen ehunekoa.	Bitartekaritzaren kalitatea
	>=10 eta <=40	5			
	> 40	10			
	Puntuak, gehienez, guztira		100		

*1. irizpideari dagokionez, agentziak laguntzaile gisa egindako hiru urte gehienez hartuko dira kontuan. Lehenengo urtean, enpresa guztiak berritzat hartuko dira; bigarren urtean, lehenengo urtearekin alderatuko da; hirugarren urtean, aurreko biekin, eta laugarren urtean, aurreko hirurak hartuko dira kontuan.

EBALUAZIO-PROZESUA GAINDITZEKO BETEKIZUNAK:

Guztira 60 puntu edo gehiago, eta gutxienez 5 puntu 2., 3. eta 9. irizpideetako bitan.

II. ERANSKINA

Okup. Taldea	Kualifikazio-maila	Okupazio-taldearen deskribapena
0011	C	Indar armatuetako ofizialak
0012	C	Indar armatuetako ofizialordeak
0020	C	Indar armatuetako tropa eta marinelak
1111	C	Botere betearazle (estatu, erkidego eta toki-mailako) eta legegileetako kideak
1112	C	Administrazio Publikoetako zuzendaritza-kideak
1113	C	Gizarte-intereseko antolakundeetako zuzendariak
1120	C	Zuzendari nagusiak eta presidente betearazleak
1211	C	Finantzako zuzendariak
1212	C	Giza baliabideetako zuzendariak
1219	C	Politika eta plangintzako eta beste epigrafeetan sailkatuta ez dauden bestelako administrazio-sailetako zuzendariak
1221	C	Merkataritza- eta salmenta-zuzendariak
1222	C	Publizitate eta harreman publikoetako zuzendariak
1223	C	Ikerketa eta garapeneko zuzendariak
1311	C	Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategietako ekoizpen-zuzendariak
1312	C	Arrantzako eta akuikulturako ustiategietako ekoizpen-zuzendariak
1313	C	Manufaktura-industrietako zuzendariak
1314	C	Meatze-ustiategietako zuzendariak
1315	C	Hornidura, garraio, banaketa eta antzeko enpresetako zuzendariak
1316	C	Eraikuntza-enpresetako zuzendariak
1321	C	Informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) zerbitzuetako zuzendariak
1322	C	Haurrentzako gizarte-zerbitzuetako zuzendariak
1323	C	Osasun-etxeetako zuzendari-kudeatzaileak
1324	C	Adinekoentzako gizarte-zerbitzuetako zuzendariak
1325	C	Bestelako gizarte-zerbitzuetako zuzendariak
1326	C	Heziketa-zerbitzuetako zuzendariak
1327	C	Banketxeko sukurtsaleko, finantza-zerbitzuetako eta aseguru-zerbitzuetako zuzendariak
1329	C	Beste epigrafeetan sailkatuta ez dauden zerbitzu profesionaleko bestelako enpresetako zuzendariak
1411	C	Hoteletako zuzendariak eta kudeatzaileak
1419	C	Ostatu-zerbitzuetako bestelako enpresetako zuzendariak eta kudeatzaileak
1421	C	Jatetxeetako zuzendariak eta kudeatzaileak
1422	C	Taberna, kafetegi eta antzekoetako zuzendariak eta kudeatzaileak
1429	C	Catering-enpresetako eta bestelako jatetxe-enpresetako zuzendariak eta kudeatzaileak
1431	C	Handizkako merkataritzako enpresetako zuzendariak eta kudeatzaileak
1432	C	Txikizkako merkataritzako enpresetako zuzendariak eta kudeatzaileak
1501	C	Jolasezko jardueretako, jarduera kulturaletako eta kirol-jardueretako enpresetako zuzendariak eta kudeatzaileak
1509	C	Hondakinen kudeaketarako enpresetako eta beste epigrafeetan sailkatuta ez dauden zerbitzuetako bestelako enpresetako zuzendariak eta kudeatzaileak
2111	C	Familia-medikuak
2112	C	Bestelako mediku espezialistak
2121	C	Espezialitaterik gabeko erizainak
2122	C	Erizain espezialistak (emaginak izan ezik)

Okup. Taldea	Kualifikazio-maila	Okupazio-taldearen deskribapena
2123	C	Emaginak
2130	C	Albaitariak
2140	C	Farmazialariak
2151	C	Odontologoak eta estomatologoak
2152	C	Fisioterapeutak
2153	C	Dietistak eta nutrizionistak
2154	C	Logopedak
2155	C	Optikari-ikusmen-neurtzaileak
2156	C	Terapeuta okupazionalak
2157	C	Podologoak
2158	C	Osasuneko eta lan- eta ingurumen-higieneko profesionalak
2159	C	Beste epigrafeetan sailkatuta ez dauden osasuneko profesionalak
2210	C	Unibertsitateko eta goi-mailako hezkuntzako bestelako irakasleak (Lanbide Heziketa izan ezik)
2220	C	Lanbide Heziketako irakasleak (ikasgai zehatzak)
2230	C	Bigarren Hezkuntzako irakasleak (Lanbide Heziketako ikasgai zehatzak izan ezik)
2240	C	Lehen Hezkuntzako irakasleak
2251	C	Haur Hezkuntzako irakasleak
2252	C	Haur Hezkuntzako teknikariak
2311	C	Hezkuntza Bereziko irakasleak
2312	C	Hezkuntza Bereziko hezitzaile teknikariak
2321	C	Metodo didaktiko eta pedagogikoetako espezialistak
2322	C	Irakaskuntza ez-arautuko hizkuntza-irakasleak
2323	C	Irakaskuntza ez-arautuko musika- eta dantza-irakasleak
2324	C	Irakaskuntza ez-arautuko arte-irakasleak
2325	C	Irakaskuntza ez-arautuko informazioaren teknologien instruktoreak
2326	C	Ingurumen-hezkuntzako profesionalak
2329	C	Beste epigrafeetan sailkatuta ez dauden irakasleak eta irakaskuntzako profesionalak
2411	C	Fisikariak eta astronomoak
2412	C	Meteorologoak
2413	C	Kimikariak
2414	C	Geologoak eta geofisikariak
2415	C	Matematikariak eta aktuarioak
2416	C	Estatistikariak
2421	C	Biologoak, botanikariak, zoologoak eta antzekoak
2422	C	Nekazaritzako ingeniariak
2423	C	Mendi-ingeniariak
2424	C	Nekazaritzako ingeniari teknikoak
2425	C	Basogintzako eta natura-inguruneko ingeniari teknikoak
2426	C	Ingurumena babesteko profesionalak
2427	C	Enologoak
2431	C	Industria eta produkzioko ingeniariak
2432	C	Eraikuntzako eta obra zibiletako ingeniariak
2433	C	Mekanikako ingeniariak
2434	C	Aeronautika-ingeniariak

Okup. Taldea	Kualifikazio-maila	Okupazio-taldearen deskribapena
2435	C	Kimika-ingeniariak
2436	C	Meatze-ingeniariak, metalurgia-ingeniariak eta antzeko ingeniariak
2437	C	Ingurumen-ingeniariak
2439	C	Beste epigrafeetan sailkatuta ez dauden ingeniariak
2441	C	Elektrizitateko ingeniariak
2442	C	Elektronikako ingeniariak
2443	C	Telekomunikazioetako ingeniariak
2451	C	Arkitektoak (paisaia-arkitektoak eta hirigileak izan ezik)
2452	C	Paisaia-arkitektoak
2453	C	Hirigileak eta zirkulazioko ingeniariak
2454	C	Ingeniari geografoak eta kartografiako ingeniariak
2461	C	Industria eta produkzioko ingeniari teknikoak
2462	C	Herri-lanetako ingeniari teknikoak
2463	C	Mekanikako ingeniari teknikoak
2464	C	Aeronautikako ingeniari teknikoak
2465	C	Kimika-ingeniari teknikoak
2466	C	Meatzeetako ingeniariak, metalurgiakoak eta antzeko ingeniari teknikoak
2469	C	Beste epigrafeetan sailkatuta ez dauden ingeniari teknikoak
2471	C	Elektrizitateko ingeniari teknikoak
2472	C	Elektronikako ingeniari teknikoak
2473	C	Telekomunikazioetako ingeniari teknikoak
2481	C	Arkitekto teknikoak eta hirigile teknikoak
2482	C	Produktuen eta jantzien diseinatzaileak
2483	C	Topografiako ingeniari teknikoak
2484	C	Diseinatzaile grafikoak eta multimedia diseinatzaileak
2511	C	Abokatuak
2512	C	Fiskalak
2513	C	Epaileak eta magistratuak
2591	C	Notarioak eta erregistratzaileak
2592	C	Prokuradoreak
2599	C	Beste epigrafeetan sailkatuta ez dauden zuzenbideko profesionalak
2611	C	Kontabilitateko espezialistak
2612	C	Finantza- eta inbertsio-aholkulariak
2613	C	Finantza-analistak
2621	C	Kudeaketako eta antolaketako analistak
2622	C	Enpresa-politikaren administrazioko espezialistak
2623	C	Administrazio publikoetako espezialistak
2624	C	Langileei buruzko politika eta zerbitzuetako espezialistak
2625	C	Langileen prestakuntzako espezialistak
2630	C	Turismo-enpresetako eta jardueretako teknikariak
2640	C	Salmenta teknikoetako eta mediku-salmentetako profesionalak (IKTak izan ezik)
2651	C	Publizitateko eta merkaturatzeko profesionalak
2652	C	Harreman publikoetako profesionalak
2653	C	Informazioaren eta komunikazioen teknologien salmentako profesionalak

Okup. Taldea	Kualifikazio-maila	Okupazio-taldearen deskribapena
2711	C	Sistemen analistak
2712	C	Software-analistak eta -diseinatzaileak
2713	C	Web- eta multimedia-analistak, -programatzaileak eta -diseinatzaileak
2719	C	Beste epigrafeetan ez dauden software- eta multimedia-analistak eta diseinatzaileak
2721	C	Datu-baseetako diseinatzaileak eta administratzaileak
2722	C	Sistemen eta sareen administratzaileak
2723	C	Sare-informatikoen analistak
2729	C	Beste epigrafeetan sailkatuta ez dauden datu-baseetako eta informatika-sareetako espezialistak
2810	C	Ekonomialariak
2821	C	Soziologoak, geografoak, antropologoak, arkeologoak eta antzekoak
2822	C	Filosofoak, historialariak eta zientzia-politikoetako profesionalak
2823	C	Psikologoak
2824	C	Gizarte-laneko eta -hezkuntzako profesionalak
2825	C	Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako agenteak
2830	C	Erlijio bateko eta besteko apaizak
2911	C	Artxibozainak eta museo-kontserbatzaileak
2912	C	Liburuzainak, dokumentalistak eta antzekoak
2921	C	Idazleak
2922	C	Kazetariak
2923	C	Filologoak, interpreteak eta itzultzaileak
2931	C	Arte plastikoen eta ikusmen-arteen artistak
2932	C	Musikagileak, musikariak eta kantariak
2933	C	Koreografoak eta dantzariak
2934	C	Zinema-zuzendariak, antzerki-zuzendariak eta antzekoak
2935	C	Aktoreak
2936	C	Irratiko, telebistako esatariak eta bestelako aurkezleak
2937	C	Zezenketa-ikuskizunetako profesionalak
2939	C	Beste epigrafeetan sailkatuta ez dauden artista sortzaile eta interpretatzaileak
3110	C	Delineatzaileak eta marrazkilari teknikoak
3121	C	Fisika- eta kimika-zientzietako teknikariak
3122	C	Eraikuntzako teknikariak
3123	C	Elektrizitateko teknikariak
3124	C	Elektronika teknikariak (elektromedikuntza izan ezik)
3125	C	Elektronikako teknikariak, elektromedikuntzako espezialitatea
3126	C	Mekanikako teknikariak
3127	C	Industria-kimikako laborategiko teknikariak eta analistak
3128	C	Metalurgiako eta meatzeetako teknikariak
3129	C	Fisika-, kimika- eta ingurumen-zientzietako eta ingeniaritzako bestelako teknikariak
3131	C	Energia ekoizteko instalazioetako teknikariak
3132	C	Hondakinak, ura tratatzeko instalazioetako teknikariak eta antzeko instalazioetako bestelako operadoreak
3133	C	Produktu kimikoak prozesatzeko instalazioetako kontroleko teknikariak
3134	C	Petrolioaren eta gas naturalaren findegietako teknikariak
3135	C	Metalgintzako prozesuetako kontroleko teknikariak

Okup. Taldea	Kualifikazio-maila	Okupazio-taldearen deskribapena
3139	C	Beste epigrafeetan sailkatuta ez dauden prozesuetako kontroleko teknikariak
3141	C	Biologia-zientzietako teknikariak (osasun-eremuetan izan ezik)
3142	C	Nekazaritzako eta abeltzaintzako teknikariak
3143	C	Basogintzako eta natura-inguruneko teknikariak
3151	C	Makineriako buruak eta ofizialak
3152	C	Kapitainak eta zubiko ofizialak
3153	C	Hegazkin-pilotuak eta antzeko profesionalak
3154	C	Aire-zirkulazioko kontrolatzaileak
3155	C	Aire-zirkulazioaren segurtasuneko teknikariak
3160	C	Fisika-, kimika-zientzietako eta ingeniaritzako kalitate-kontroleko teknikariak
3201	B	Meatzeetako ingeniaritzako gainbegiraleak
3202	B	Eraikuntzaren gainbegiraleak
3203	B	Elikagaien eta tabakoaren industrietako gainbegiraleak
3204	B	Kimika- eta farmazia-industrietako gainbegiraleak
3205	B	Plastikoa, kautxua eta erretxina naturala transformatzeko industrietako gainbegiraleak
3206	B	Zuraren-industriako eta papergintzako gainbegiraleak
3207	B	Arte grafikoen industrietako eta paperezko produktuen ekoizpeneko produkzioaren gainbegiraleak
3209	B	Bestelako manufaktura-industrietako gainbegiraleak
3311	C	Erradioterapiako teknikariak
3312	C	Diagnosi-irudiko teknikariak
3313	C	Anatomia patologikoko eta zitologiako teknikariak
3314	C	Diagnostiko klinikoko laborategiko teknikariak
3315	C	Ortoprotesien teknikariak
3316	C	Hortz-protesietako teknikariak
3317	C	AUDIO-PROTESIEN TEKNIKARIAK
3321	C	Aho-hortzetako higieneko goi-mailako teknikariak
3322	C	Osasun-dokumentazioko goi-mailako teknikariak
3323	C	Dietetikako goi-mailako teknikariak
3324	C	Optometriako teknikariak
3325	B	Fisioterapeuta laguntzaileak
3326	B	Laneko arriskuen prebentzioko eta ingurumen-osasuneko teknikariak
3327	B	Albaitaritzako laguntzaileak
3329	B	Beste epigrafeetan sailkatuta ez dauden osasuneko teknikariak
3331	B	Akupunturako, naturopatiako, homeopatiako, txinatar medikuntza naturaleko eta ayurveda-ko profesionalak
3339	B	Terapia alternatiboetako bestelako profesionalak
3401	B	Kanbio, burtsa eta finantzako laguntza-profesionalak eta bitartekariak
3402	B	Mailegu eta kredituen komertzialak
3403	B	Liburu-eramaileak
3404	B	Zerbitzu estatistikoetako, matematikoetako eta antzekoetako laguntza-profesionalak
3405	B	Tasatzaileak
3510	B	Agente eta ordezkari komertzialak
3521	B	Aseguru-bitartekariak eta -agenteak
3522	B	Erosketa-agenteak

Okup. Taldea	Kualifikazio-maila	Okupazio-taldearen deskribapena
3523	B	Kontsignaziodunak
3531	B	Aduana-ordezkariak
3532	B	Hitzaldien eta ospakizunen antolatzaileak
3533	B	Eskulana kontratatzeko agenteak edo bitartekariak (ikuskizunen ordezkariak izan ezik)
3534	B	Higiezinen jabetzako agenteak eta administratzaileak
3535	B	Harreman publikoen bozeramaileak eta agenteak
3539	B	Artista- eta kirol-ordezkariak eta beste epigrafeetan sailkatuta ez dauden eta merkataritza-zerbitzuen bestelako agenteak
3611	B	Idazkaritzako gainbegiraleak
3612	B	Laguntzaile juridikoak
3613	B	Zuzendaritzako laguntzaileak eta administrazio-laguntzaileak
3614	B	Osasun-etxeko edo klinikako idazkariak
3621	B	Zerga-administrazio publikoetako laguntza-profesionalak
3622	B	Gizarte-zerbitzuetako administrazio publikoetako laguntza-profesionalak
3623	B	Lizentziak emateko zerbitzuetako administrazio publikoetako laguntza-profesionalak
3629	B	Ikuskapen eta kontrol lanetarako eta antzeko lanetarako administrazio publikoetako bestelako laguntza-profesionalak
3631	B	Polizia nazionaleko, autonomia-erkidegoko eta tokian tokiko poliziako teknikariak
3632	B	Guardia zibileko ofizialordeak
3711	B	Lege- eta gizarte-zerbitzuetako eta antzekoetako laguntza-profesionalak
3712	B	Detektibe pribatuak
3713	B	Lanerako eta gizarte-hezkuntzako laguntza-profesionalak
3714	B	Emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren sustatzaileak
3715	B	Gizataldeetako animatzaileak
3716	B	Erlijioetako laguntzaile laikoak
3721	B	Atletak eta kirolariak
3722	B	Kirol-jardueretako entrenatzaileak eta epaileak
3723	B	Kirol-jardueren irakasleak
3724	B	Jolas-jardueren monitoreak
3731	B	Argazkilariak
3732	C	Barne-diseinatzaileak eta -dekoratzaileak
3733	C	Arte-galeriako, museoko eta liburutegiko teknikariak
3734	C	Sukaldariak
3739	B	Kultura- eta arte-jardueretako bestelako teknikariak eta laguntza-profesionalak
3811	C	Informatika-sistemen eragiketetako teknikariak
3812	C	Informazioaren teknologien erabiltzailea laguntzeko teknikariak
3813	C	Sareetako teknikariak
3814	C	Web teknikariak
3820	C	Informatika-programatzaileak
3831	C	Ikus-entzunezko grabazioko teknikariak
3832	C	Irratidifusioko teknikariak
3833	C	Telekomunikazioen ingeniaritzako teknikariak
4111	B	Kontabilitate-enplegatuak
4112	B	Langileak kontrolatzeko eta nominetako enplegatuak
4113	B	Estatistika, finantza eta banku-zerbitzuetako bulego-enplegatuak

Okup. Taldea	Kualifikazio-maila	Okupazio-taldearen deskribapena
4121	B	Hornikuntza eta inbentarioa kontrolatzeko enplegatuak
4122	B	Ekoizpena laguntzeko zerbitzuetako bulegoko enplegatuak
4123	B	Logistikako eta pertsonak eta salgaiak garraiatzeko enplegatuak
4210	B	Liburutegietako eta artxiboetako enplegatuak
4221	B	Posta-zerbitzuetako enplegatuak (mostradoreko enplegatuak izan ezik)
4222	B	Inprimategiko kodetzaileak eta zuzentzaileak
4223	B	Langileen zerbitzuetako enplegatuak
4301	B	Datuen grabatzaileak
4309	B	Beste epigrafeetan sailkatuta ez dauden eta jendaurreko lanik ez duten enplegatu administrariak
4411	B	Erabiltzailea informatzeko enplegatuak
4412	B	Harreragileak (hoteletakoak izan ezik)
4421	B	Bidaia-agentzietako enplegatuak
4422	B	Hoteletako harreragileak
4423	B	Telefonistak
4424	B	Teleoperadoreak
4430	B	Inkesta-agenteak
4441	B	Bankuko kutxazainak eta antzekoak
4442	B	Apustuetako salmenta-enplegatuak
4443	B	Joko-aretoko enplegatuak eta antzekoak
4444	B	Bahitura- eta mailegu-etxeetako enplegatuak
4445	B	Fakturen eta zorren kobratzaileak eta antzeko enplegatuak
4446	B	Posta-zerbitzuko mostradoreko enplegatuak
4500	B	Beste epigrafeetan sailkatuta ez dauden eta jendaurreko lana duten enplegatu administrariak
5000	B	Zerbitzari- eta sukaldari-jabeak
5110	B	Soldatako sukaldariak
5120	B	Soldatako zerbitzariak
5210	B	Dendetako eta biltegietako atalburuak
5220	A	Dendetako edo biltegietako saltzaileak
5300	B	Dendako jabe-merkatariak
5411	A	Kiosko-saltzaileak
5412	A	Noizbehinkako azokako edo azoka txikiko saltzaileak
5420	A	Telemarketin-operadoreak
5430	A	Gasolina-zerbitzuguneko saltzaileak
5491	A	Etxez etxeko saltzaileak
5492	A	Salmenta-sustatzaileak
5493	B	Moda, arte eta publizitateko modeloak
5499	A	Beste epigrafeetan sailkatuta ez dauden saltzaileak
5500	A	Kutxazainak eta txartel-saltzaileak (bankukoak izan ezik)
5611	B	Ospitaleko erizaintzako laguntzaileak
5612	B	Lehen mailako arretako erizaintzako laguntzaileak
5621	B	Farmaziako teknikari laguntzaileak
5622	B	Osasun-larrialdietako teknikariak
5629	B	Beste epigrafeetan sailkatuta ez dauden osasun-zerbitzuko pertsonak zaintzeko langileak
5710	B	Etxez etxe zaintza pertsonaleko langileak

Okup. Taldea	Kualifikazio-maila	Okupazio-taldearen deskribapena
5721	B	Haurtzaindegi eta ikastetxeetako haur-zaintzaileak
5722	B	Etxeko haur-zaintzaileak
5811	B	Ile-apaintzaileak
5812	B	Estetika eta ongizateko tratamenduetako espezialistak eta antzekoak
5821	B	Hegazkineko laguntzaileak eta hegazkineko, itsasontziko eta treneko zerbitzariak
5822	B	Lurreko garraioko kobratzaileak eta begiratzaileak
5823	B	Turismo-laguntzaileak
5824	B	Lurreko laguntzaileak
5825	B	Turismo-gidariak
5831	B	Bulego, hotel eta bestelako tokien mantentze eta garbiketako gainbegiraleak
5832	B	Etxeko zerbitzuko maiordomoak
5833	B	Eraikuntzetako etxezainak
5840	B	Ostatu txikiko langile-jabeak
5891	B	Laguntzaile pertsonala edo konpainiako pertsonak
5892	B	Hileta-zerbitzuetako langileak eta baltsamatzaileak
5893	B	Animalia-zaintzaileak eta -hezitzaileak
5894	B	Autoeskolako irakasleak
5895	A	Astrologoak, igarleak eta antzekoak
5899	A	Beste epigrafeetan sailkatuta ez dauden zerbitzu pertsonaleko langileak
5941	B	Segurtasuneko jagoleak eta armak eramateko gaituta dauden antzekoak
5942	B	Segurtasuneko jagolearen laguntzaileak eta armak eramateko gaitu gabeko antzekoak
5991	B	Espetxeko jagoleak
5992	B	Bainuzain sorosleak
5993	B	Baso- eta ingurumen-agenteak
5999	B	Beste epigrafeetan sailkatuta ez dauden babes- eta segurtasun-zerbitzuetako langileak
6110	B	Nekazaritzako jarduerako langile kualifikatuak (baratze, berotegi, mintegi eta lorategietakoak izan ezik)
6120	B	Baratze, berotegi, mintegi eta lorategiko langile kualifikatuak
6201	B	Behi-hazkuntzaren jarduerako langile kualifikatuak
6202	B	Ardi- eta ahuntz-hazkuntzaren jarduerako langile kualifikatuak
6203	B	Txerri-hazkuntzaren jarduerako langile kualifikatuak
6204	B	Erlezaintzako eta serizikulturako langile kualifikatuak
6205	B	Hegazti- eta untxi-hazkuntzako langile kualifikatuak
6209	B	Beste epigrafeetan sailkatuta ez dauden abeltzaintzako jardueretako langile kualifikatuak
6300	B	Nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduera mistoko langileak
6410	B	Baso-jardueretako eta natura-inguruneko langile kualifikatuak
6421	B	Akuikulturako langile kualifikatuak
6422	B	Itsasbazterreko eta ibai-aintziretako arrantzaleak
6423	B	Alturako arrantza
6430	B	Ehiza-jarduerako langile kualifikatuak
7111	B	Kofratzaileak eta obran hormigoia jartzeko langileak
7112	B	Egiturako prefabrikatuen muntatzaileak (hormigoia soilik)
7121	B	Igeltseroak
7122	B	Harginak, harri-trontzalariak, -zizelkariak eta -grabatzaileak

Okup. Taldea	Kualifikazio-maila	Okupazio-taldearen deskribapena
7131	B	Arotzak (ebanistak izan ezik)
7132	B	Itxiera metalikoen instalatzaileak eta metaleko arotzak (metalezko egituren muntatzaileak izan ezik)
7191	B	Eraikin-mantentzaileak
7192	B	Fatxada teknikoen instalatzaileak
7193	B	Eraikinetako iragazgaizte-sistemen instalatzaileak
7199	B	Beste epigrafeetan sailkatuta ez dauden eraikuntzako egitura-lanetako bestelako langileak
7211	B	Eskaiolistak
7212	B	Pasta eta morteroko estalduren aplikatzaileak
7221	B	Iturginak
7222	B	Eraikinetako gas muntatzaile-instalatzaileak
7223	B	Obra publikoetako hodi-instalatzaileak
7231	B	Pintoreak eta papereztatzaileak
7232	B	Manufaktura-industriako pintoreak
7240	B	Zoru-jartzaileak, parket-jartzaileak eta antzekoak
7250	B	Hozte eta aire-girotze sistemen mekanikari-instalatzaileak
7291	B	Estalkien muntatzaileak
7292	B	Bero- eta soinu-isolamendurako materialaren instalatzaileak
7293	B	Beiragileak
7294	B	Eguzki-energiako plaken muntatzaile-instalatzaileak
7295	B	Eraikintzetako fatxadak eta tximiniak garbitzeko langileak
7311	B	Moldekatzaileak eta argileak
7312	B	Soldatzaileak eta oxiebakitzaileak
7313	B	Xafla-langileak eta galdaragileak
7314	B	Metalezko egituren muntatzaileak
7315	B	Kablezko egituren muntatzaileak eta kable-lotzaileak
7321	B	Errementariak eta forjariak
7322	B	Erreminten fabrikazioko langileak, mekanikari doitzaileak, modelogileak, matrizegileak eta antzekoak
7323	B	Makina-erraminten doitzaileak eta operadoreak
7324	B	Metal-leuntzaileak eta tresna-zorrotzaileak
7401	B	Ibilgailu motordunen mekanikari doitzaileak
7402	B	Hegazkin-motorren mekanikariak eta doitzaileak
7403	B	Nekazaritza- eta industria-makinen mekanikari doitzaileak
7404	B	Itsasontziko eta treneko makineriaren mekanikari doitzaileak
7405	B	Bizikleten konpontzaileak eta antzekoak
7510	B	Eraikuntzako argiketariak eta antzekoak
7521	B	Aparatu elektrikoen mekanikari eta konpontzaileak
7522	B	Linea elektrikoen instalatzaileak eta konpontzaileak
7531	B	Tresna elektronikoen mekanikari eta konpontzaileak
7532	B	Elektromedikuntzako instalatzaileak eta konpontzaileak
7533	B	Informazioaren eta komunikazioen teknologietako instalatzaileak eta konpontzaileak
7611	B	Erlojugileak eta doitasunezko tresnen mekanikariak
7612	B	Luthierrak eta antzekoak. Musika-tresnen afinatzaileak
7613	B	Bitxigileak, urregileak eta zilargileak

Okup. Taldea	Kualifikazio-maila	Okupazio-taldearen deskribapena
7614	B	Zeramikako langileak, eltzegileak eta antzekoak
7615	B	Beiraren putz-egileak, modelatzaileak, ijezleak, ebakitzaileak eta leuntzaileak
7616	B	Errotulatzaileak, beira-grabatzaileak, gauza ezberdinen pintore dekoratzaileak
7617	B	Zuraren eta antzeko materialen artisauak. Otarregileak, eskuilagileak eta antzeko langileak
7618	B	Ehun, larru eta antzeko materialen artisauak, zuntz-prestatzaileak eta artisau-ehundegiko ehuleak, puntuzko ehunen ehuleak eta antzekoak
7619	B	Beste epigrafeetan sailkatuta ez dauden artisauak
7621	B	Aurreinprimaketako prozesuetako langileak
7622	B	Inprimaketako prozesuetako langileak
7623	B	Azaleztatzeko prozesuetako langileak
7701	B	Abere-hiltzaileak eta haragi-industriako langileak
7702	B	Arrain-industriako langileak
7703	B	Okinak, pastelgileak eta gozogileak
7704	B	Esnea tratatzeko eta esnekigintzako langileak (izozkiak barne)
7705	B	Frutaren eta barazkien kontserba-langileak eta edari alkoholgabeak lantzeko langileak
7706	B	Ardoa ez diren edari alkoholdunak egiteko langileak
7707	B	Ardogintzako langileak
7708	B	Tabako-prestatzaileak eta tabako-produktuen egileak
7709	B	Janarien eta edarien dastatzaileak nahiz sailkatzaileak
7811	B	Zura tratatzen duten langileak
7812	B	Zura tratatzeko makinen doitzaile operadoreak
7820	B	Ebanistak eta antzeko langileak
7831	B	Jostunak, josleak, larruginak eta kapelagileak
7832	B	Ehunezko eta larruzko produktuentzako patroigileak
7833	B	Ehunen, ile-larruaren, larruaren eta bestelako materialen ebakitzaileak
7834	B	Esku-josleak, brodatzaileak eta antzekoak
7835	B	Tapizatzaileak, koltxoigileak eta antzekoak
7836	B	Larru-zurratzaileak eta prestatzaileak
7837	B	Zapatariak eta antzekoak
7891	B	Urpekariak
7892	B	Dinamitatzaileak
7893	B	Produktu-sailkatzaile eta -probatzaileak (janariak, edariak eta tabakoa izan ezik)
7894	B	Fumigatzaileak eta izurrite eta belar gaiztoen bestelako kontrolatzaileak
7899	B	Beste epigrafeetan sailkatuta ez dauden bestelako lanbideetako ofizialak, langileak eta artisauak
8111	B	Meatzariak eta meatzaritza-instalazioko bestelako operadoreak
8112	B	Mineralak eta harriak prestatzeko instalazioetako operadoreak
8113	B	Zundatzaileak eta antzeko langileak
8114	B	Mineral ez-metalikoetatik eratorritako produktuak fabrikatzeko makinetako operadoreak
8121	B	Metalak lortzeko eta transformatzeko instalazioetako operadoreak
8122	B	Metalak leuntzeko, galvanizatzeko eta gaineztatzeko makinetako operadoreak
8131	B	Kimika-industria instalazioko operadoreak
8132	B	Farmaziako eta kosmetikako produktuak eta antzekoak egiteko makinen operadoreak
8133	B	Argazkigintza-laborategietako langileak eta antzekoak

Okup. Taldea	Kualifikazio-maila	Okupazio-taldearen deskribapena
8141	B	Kautxuzko eta erretxina naturaletatik eratorritako produktuak egiteko makinen operadoreak
8142	B	Plastikozko produktuak egiteko makinen operadoreak
8143	B	Paperezko eta kartoizko produktuak egiteko makinen operadoreak
8144	B	Zerrategietako, taulak egiteko makinen eta zura eta kortxoa tratatzeko antzeko instalazioetako operadoreak
8145	B	Paper-orea prestatzeko eta papera egiteko instalazioetako operadoreak
8151	B	Zuntzak prestatzeko, iruteko eta harilkatzeko makinen operadoreak
8152	B	Ehungailuen eta ehuntzeko bestelako makinen operadoreak
8153	B	Josteko eta brodatzeko makinetako operadoreak
8154	B	Ehunak zuritzeko, tindatzeko, estanpatzeko eta akabatzeko makinetako operadoreak
8155	B	Larruak eta ilelarruak tratatzeko makinetako operadoreak
8156	B	Oinetakoak, larrukiak eta eskularruak egiteko makinetako operadoreak
8159	B	Beste epigrafeetan sailkatuta ez dauden ehunezko produktuak egiteko makinetako operadoreak
8160	B	Janari-edariak eta tabako produktuak egiteko makinetako operadoreak
8170	B	Ikuztegi eta tindategiko makinetako operadoreak
8191	B	Labeetako eta beiragintzako eta zeramikako instalazioetako operadoreak
8192	B	Lurrun-makinen eta galdaren operadoreak
8193	B	Enbalaje, botilatze eta etiketatzeko makinetako operadoreak
8199	B	Beste epigrafeetan sailkatuta ez dauden instalazio eta makineria finkoko operadoreak
8201	B	Makineria mekanikoko mihiztatzaileak
8202	B	Ekipo elektriko eta elektronikoetako mihiztatzaileak
8209	B	Beste epigrafeetan sailkatuta ez dauden muntatzaileak eta mihiztatzaileak
8311	C	Tren-makinen gidariak
8312	B	Trenbide-maniobretako agenteak
8321	B	Nekazaritzako makina higigarrien operadoreak
8322	B	Basogintzako makina higigarrien operadoreak
8331	B	Lur-mugimendurako makineriaren eta antzeko ekipoen operadoreak
8332	B	Garabien, karga-jasogailuen eta materialak mugitzeko antzeko makineriaren operadoreak
8333	B	Orga jasotzaileen operadoreak
8340	B	Zubiko marinelak, makinetako marinelak eta antzekoak
8411	B	Automobil-, taxi- eta kamioneta-gidari jabeak
8412	B	Soldatako automobil-, taxi- eta kamioneta-gidariak
8420	B	Autobus- eta tranbia-gidariak
8431	B	Kamioi-gidari jabeak
8432	B	Kamioi-sodatako gidariak
8440	B	Motozikleta- eta ziklomotor-gidariak
9100	A	Etxeko langileak
9210	A	Bulegoak, hotelak eta antzeko tokiak garbitzeko langileak
9221	A	lehorreko esku-garbitzaileak eta antzekoak
9222	A	Ibilgailu-garbitzaileak
9223	A	Leiho-garbitzaileak
9229	A	Garbiketako bestelako langileak
9310	A	Sukaldeko laguntzaileak

Okup. Taldea	Kualifikazio-maila	Okupazio-taldearen deskribapena
9320	A	Janari azkarraren prestatzaileak
9410	A	Kaleko saltzaileak
9420	A	Publizitate-banatzaileak, oinetako-garbitzaileak eta kaleko bestelako langileak
9431	A	Mandatariak
9432	A	Ekipaje-eramaileak eta antzekoak
9433	A	Banatzaileak, mandatugileak eta oinezko mezulariak
9434	A	Kontagailu-irakurleak eta jolas-makinen eta makina automatikoen biltzaileak
9441	A	Hondakinen biltzaileak
9442	A	Hondakinen sailkatzaileak, puntu garbiko langileak eta txatar-biltzaileak
9443	A	Kale-garbitzaileak eta antzekoak
9490	A	Bestelako oinarrizko okupazioak
9511	A	Nekazaritzako peoiak (baratze, berotegi, mintegi eta lorategikoetakoak izan ezik)
9512	A	Nekazaritzako peoiak, baratze, berotegi, mintegi eta lorategikoetakoak
9520	A	Abeltzaintzako peoiak
9530	A	Nekazaritzako eta abeltzaintzako peoiak
9541	A	Arrantzako peoiak
9542	A	Akuikulturako peoiak
9543	A	Basogintzako eta ehizako peoiak
9601	A	Herri-lanetako peoiak
9602	A	Eraikinen eraikuntzako peoiak
9603	A	Meatzeetako, harrobietako eta bestelako erauzketa-industrietako peoiak
9700	A	Manufaktura-industrietako peoiak
9811	A	Salgaien garraioko peoiak eta zamaketariak
9812	A	Pertsonak garraiatzeko animaliek tiratutako ibilgailuetako gidariak eta antzekoak
9820	A	Betetzaileak